

Donostian, 2015eko urriaren 23an

## IDAZKARI NAGUSIARI:

### DATUEN BEHATOKIAREN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Eneko Goia alkateari hil honetako ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

## JUSTIFIKAZIOA:

Zerbitzu Orokorren Batzordeak izan zuen bileran esan genuen bezala, alkateak irailaren 29an hartutako ebazpen bat bidez onartu zen Datuen Behatokia sortzea onartzea. Udal Gobernuak azaldu zuen lanabes berri hori abian jarri behar duen lantaldeak egingo duela (Udaleko zuzendaritza guztietako ordezkariak, Donostia Kulturakoek, Sustapen Baltzukoek eta Plan Estrategikoaren Bulegokoek eratuko dute) gaur den egoeraren azterketa eta diagnostikoa, eta baita eskueran izango diren datu sailen katalogoa prestatu eta antolaketa eta aurrekontu proposamena egin ere.

Udal Gobernuak emandako informazioa aintzakotzat harturik, hiriaren alderdi askotako (ekonomia, jendartea, demografia, ingurumena...) datuak jasoko ditu behatoki horrek, era askotako datuak, eta herritarren, jendarte antolatuen, enpresen nahiz Udaleko departamentuen esku jarriko ditu, zer behar duten, hartarako erabiltzeko modua izan dezaten.

Bildu behar diren datu horiek zenbateko garrantzia duten kontuan izanik, funtsezkoa da genero ikuspegia ere aintzakotzat hartzea datuak lantzeko garaian. Bestalde, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen atarikoak dakartza emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko diren bi oinarri edo estrategiarik egokienak: genero ikuspegia txertatzea eta ekintza positiboa.

Hala, ikuspegi hori txertatzea funtsezkoa da sexuaren aldagaia estatistiketan, inkestetan eta datuen bilketan sistematikoki sartu ahal izateko. Eta, alde horretatik, generoaren adierazleak estatistiketan sartzeak emakumeen eta gizonen artean rolei, egoerei, baldintzei, asmoeri eta beharrei dagokienez zer alde den hobeto ezagutzeko bidea ematen du, alde horiek zertan azaltzen diren eta aztertu behar den errealitateari nola eragiten dieten.



Era berean, sexuak eragindako desberdintasun egoeren gaineko azterketa eta ikerketa batzuk egin beharra ere izango da, zenbait diskriminazio faktoreren eraginpean diren emakume kolektiboen egoerari eta beharrei bereziki erreparatuta.

Azterketa horiek generoaren ikuspegiarekin egitea da udal departamentuek genero berdintasuna bultzatzeko politikak egiteko aurreneko pausoa emateko bidea izateko.

Generoaren aldagaiak aintzakotzat izango dituzten azterketak eta ikerketak egin ahal izateko, ezinbestekoa da Berdintasun teknikari bat izatea Datuen Behatokian, eta oraindik ez da. Hori dela eta, hauxe da gure

#### KONTROL MOZIOA

Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio Berdintasun teknikari bat ere sartzeko Datuen Behatokikoen artean.

Izpta.: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.